

BIZI HITZA

Apirila 2026

«Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu» (Lk 24, 29).

Emaus herrira doan errepideak Jesusen bi ikaslek egindako bide bati buruz hitz egiten digu. Maisuarekin igarotako egunetako ametsak, proiektuak eta une indartsuak galduta, etxera itzultzen dira utzitako bizitzari berriro ekiteko, Maisua aurkitu aurreko bizitzari alegia. Gurutziltzatu zutenetik hiru egun eskas igaro ziren, eta etsipena, beldurra eta zalantzak ziren nagusi jarraitzaileen artean.

Jerusalemdik urruntzen ari ziren, bete gabeko ametsetik, Kristorengandik eta haren mezutik urruntzen, triste, nolabait ere haren atzetik joatera bultzatu zituen proiektua bertan behera uzteko erabakia hartua zutelako.

Gu guztion historia da bidegurutzeetan erabaki bat hartzea planteatzen diguten egoeren aurrean ilusia galtzen dugunean eta kasu askotan iruditzen zaigu gure ezinegonaren erantzun bakarra atzera egin, uko egin eta etsitzea dela.

«Gutako nork ez du ezagutzen Emausko ostatua? Nork ez du bide hori bera egin dena galdua zirudien arratsalde batean? Kristo gugan hila zen... Jada ez zegoen inongo Jesusik lurtean»¹.

«Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu».

Bidean, ezezagun bat elkartu zaie biei, eta badirudi ez dakiela zer gertatu den. Galdera zehatzak egiten hasten da, samintasun eta etsipen guztia sortarazten dutenak. Lehenengo entzun egiten ditu, eta gero Eskriturak azaltzen hasten da: elkarrizketa bat da, arrastoa uzten duen topaketa bat; beraz, oraindik Jesus ezagutu ez duten arren, beraiekin gelditzeko eskatzen diote iluntzen ari baitu (ik. Lk 24, 17–29).

Hau da agian Ebanjelioan aurkitzen dugun otoitzik ederrenetako bat. Ikasleengandik Bepiztuarengana goratzen den lehen otoitza da, eta hunkigarria da guztiok egin diezaiokegun gonbidapen hau Bera gurekin eta gure artean gera dadin.

Bi dizipuluen begiak ogia zatitzerakoan irekiko dira, eta Jesus ezagutu izanaren pozak Jerusalemera itzultzera bultzatuko ditu azkenean, lagunei piztueraren berri emateko.

«Geldi zaitetz gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu».

«Agian ez dago hitz horiek baino gauza hoberik Jesusekin bizitzaren esperientzia azaltzeko, fokolarenek hasieratik egin genuena — idatzi zuen Chiara Lubichek —. Jesus beti da Jesus, eta nahiz eta bakarrik izpiritualki presente egon, dagoenean, Eskriturak azaltzen ditu eta bihotzean bere karitateak erre egiten du: bizitza da. Ezagutu dugunean, nostalgia

¹ FRANÇOIS MAURIAC, Vita di Gesù, Mondadori, Milan, 1950, 156. or.

amaigabez esaten diogu: "Gera zaitetz gurekin, Jauna, ilundu egiten du eta; zu gabe gau iluna da [...]".²

Gaua iluntasunaren sinboloa da, ezezagunarena, aurkitzeko gai ez garen argi horrena bere presentzian sinesten ez dugulako, beti bidelagun dugun arren.

Gauak inguratzen du gure planeta, zauritua eta iraindua anaiarteko borrokengatik, boterearen eta diruaren handinahiak antolatutako gerrengatik.

Injustiziak eta gehiegikeriak oihukatzeke ahotsik ez duten milioika pertsonak bizi dutena da gaua.

Eta gu nola konturatu gaitezke Jesusen presentziaz, ez baita beti gure itxaropenen arabera agertzen? Nola ulertu Bera gurekin dabilela eta bere presentziaren zeinuak ezagutarazten saiatzen dela? Eta, batez ere, nola sortu baldintzak agertu eta gurekin gera dadin?

Beti erantzuten ez dakizkigun galderak dira agian, baina Jesus bilatzeari ez uzteko eskatzen digute, begirada kontzentratzea askotan ikusten ez dugun bidelagun batengan, presente egin daitekeen Hura aitortu dezagun elkar-maitasuna bizi badugu.

Emauseko bidea gure bide guztien sinboloa da, Jaunarekin elkartzeko bidea da, bihotzeko poza itzultzen digun bidea da, berriz ere komunitatera garamatzana Kristo berpiztu dela elkarrekin aldarrikatzeko.

Patrizia Mazzola eta Bizi Hitzako taldea

² C. LUBICH, Todos uno. Escritos espirituales/3, Ciudad Nueva, Madril, 1998, 70. or.